



Hondarribia

HERRI ALDIZKARIA
208.zkia . 2008ko martxoa

HONDARRIBIKO UDALA . EUSKARA BATZORDEA . DOHAIN



PROZESIOA PARROKIA BARRUAN



JATETXEA-TABERNA



San Pedro, 35
20280 HONDARRIBIA

Tels. 943 64 27 71
943 64 10 19



Tel.: 943 11 02 01
San Pedro, 33 - 20280 HONDARRIBIA

*Zure terrazak betiko zerbitzu onenarekin, Hondarribiko Portua auzoan,
gastronomi espezialitate onekin*



kutxa



Aliprox
SUNSUNDEGI

Telf. 943 64 15 40
Santiago kalea, 17
20280 Hondarribia

BATZOKI

TABERNA - JATETXEA



- Eguneko menua
- Menu bereziak
- Karta
- Gure terraza goza ezazu

Gora Ama Guadalupekoa

Mouriskot etxea · Tel. 943 64 53 64
20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa)



Serapio Múgica, 5
IRUN
Tel.: 943 61 29 00

San Pedro, 12
HONDARRIBIA
Tel.: 943 64 20 76

Revellin, 3
HONDARRIBIA
Tel.: 943 64 56 45

Avda Navarra, 4
IRUN
Tel.: 943 62 37 03



HONDARRIBIKO ITSASKARI BAITA

P.º R. Iribarren, s/n - Apartado, 88 - Teléf. 943 642 788 - Fax 943 642 894
e-mail: cnhondarribi@terra.es
20280 HONDARRIBIA

Bide Hezkuntza programa abian da beste urte betez

Bide Hezkuntzako 2008ko programa abian da. Udaltzaingoa-aren bulegoan aurkeztu berri da aurtengo ekitaldia, eta bertan izan dira Juan Mari Altuna Udaltzaingoa eta Zerbitzueta-ko zinegotzia, Javier Altuna udaltzain burua eta Marian Luna, Bide Hezkuntzako arduraduna.

"Programa 6 eta 12 urteko haurrei zuzentzen zaie. Hondarribiko Udaltzaingotik Bide Hezkuntzan gazteak formatzeko urratsak ematen dira. Formakuntza honetan teoria eta prak-



Javier Altuna, Juan Mari Altuna eta Marian Luna

tika uztartzen dira, gizakia eta ingurunearen artean feed-back sortzen delarik. Adinean hain gazteak diren ikasleekin Bide Hezkuntzaren ikasketetan hasteak helburu bat dauka: dauden jarrerak aldatzea eta elkarbizitzeko balore prebentiboak eta ohiturak garatzea. Programaren helburua, zenbait jarrera eta balore sustatzea da, errespetua, hiritartasun kontzientzia eta prudentzia adibidez. Lehentasunezko proiektu bat kontsideratzen dugu.

Marian Lunak proiektuaren ezaugarriak eman ditu. "Esan bezala, 6 eta 12 urte bitarteko haurrekin lan egiten da. Hala ere, ezinbestekoa dugu ere gurasoen laguntza, guk hemen erakusten duguna gero bakoitzaren etxean osatu dadin. 4. eta 6. mailako ikasleei karnet bana emango diegu aurten beritasun bezala, eta bakoitzak 12 puntu izango ditu. Puntu guztiak galtzen dituenak ezingo du aurrera jarraitu, eta hausnarketa bat egin beharko du gaizki zer egin duen jakiteko.

Programaren aurrekontua 26.500 euro dira, Udaltzaingoa-aren kostua kontatu gabe. 990 ikaslerekin lan egiten da eta aurten zortzigarren edizioa da.

Argitaratzailea:

Udal Euskara Batzordea

Erredakzioa/publizitatea:

ZIF & Comunicación

info@zifcomunicacion.com

Tel.: 943 63 81 28

Kolaboratzaileak:

Koldo Ortega

Ainara Elizondo

Martin Iturbe

Jexux Mari Mendizabal

Argazkiak:

Hondarribiko Udala

ZIF & Comunicación

Fernando de la Hera

Floren Portu

Maketazioa:

Vanessa Hernández Caveró

Inprimategia:

Antza

L.G. SS 122/86

HONDARRIBIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien ondorioak.

TXANDAKO BOTIKAK MARTXOAN

2- IRAOLA San Pedro, 5	943641027
9- SAGRARIO FIZ Sokoa	943 644316
16- ALMAJANO Mendelu, 26	943 640068
19- MAYI MARTINEZ Almirante Alonso	943 642191
20- ALMAJANO Mendelu, 26	943 640068
21- ALAMEDA Harresilanda, 9	943 645798
23- MAYI MARTINEZ Almirante Alonso	943 642191
24- IRAOLA San Pedro, 5	943641027
30- IRAOLA San Pedro, 5	943641027

TXANDAKO OKINDEGIAK MARTXOAN

2- Arratibel Mendelu auzoa	943641975
9- Garmendia Portuan	943641136
16- Martinez Kale Nagusian	943641212
19- Arratibel Mendelu auzoa	943641975
20- Garmendia Portuan	943641136
21- Martinez Kale Nagusian	943641212
23- Arratibel Mendelu auzoa	943641975
24- Garmendia Portuan	943641136
30- Martinez Kale Nagusian	943641212

Alde Zaharreko sotoetako plakak aldatu egin dira

Alde Zaharreko kale guztietako sotoetako plakak aldatzen ari da Udala gaurtik hasita. Kaleen izena daramaten plakak duela hilabete batzuk aldatu ziren, eta orain, orduko irizpide bera jarraituaz, gauza bera egin da Alde Zaharrean.

Denetara 166 plaka dira, Toledoko Hijos de Faustino Rodriguez SL enpresak eginak, eta Hondarribiko Txingudi Margo-lanak azken ikutuak emandakoak. Plakak sotoetan jartzeko ardura "Karber y Obra Civil, SLU" enpresari dagokio, hau ere Hondarribikoa. Aurrekontu osoa 13.500 eurokoa da, eta lanak aste honetan burutzea espero da.

Aitor Kerejeta alkateak lan hauek "Alde Zaharraren egokitze eta edertze prozesu baten barnean" jarri ditu. "Duela hilabete batzuk kaleetako plakak aldatu ziren eta orain zenbakien txanda izan da. Orduko lan hark harrera oso ona izan zuen eta orain gauza bera gertatzea espero dugu" amaitu du Kerejeta alkateak.



Langile bat Kale Nagusian soto bateko plaka aldatzen

TAO-ko makina berriekin kreditu txartelaz ordain daiteke

Abuztuak 31 arte martxan egongo dira

Martxoaren erdetik aurrera TAO zerbitzua martxan jarriko da hirian. "Zerbitzu hau denok egokiago erabili ahal izateko ipini diren 35 makina berriak dira. Honek, TAO zerbitzua ahalik eta egokien kudeatzen lagunduko digu, hiritarrari ordaintzerako

orduan erraztu, eta minutuka ordaintzeko aukera eskaintzea, hau da, bakoitzak autoa aparkatu duen denboragatik ordaintzea, ez gehiago ez gutxiago" dio Juan Mari Altunak, Zerbitzuetako eta Udaltzaingoko zinegotziak.



"Makinak Gertec enpresak egin ditu, inteligenteak dira eta edozein arazo konpontzeko sortu dira. Egunero zenbat autok aparkatu duten esaten digu, non egin duten, eta gainera, txanponik ez badugu, txartelarekin ordaintzeko aukera ematen digu" dio Altunak.

"Ostiraletik hasita, zazpi TAO zainzaile izango ditugu, bost Portuan eta bi Alde Zaharrean. Informazioa eskaini nahi diegu. Makinak berriak dira eta hasieran kostatu egiten da egokitzea. Filosofia multa gutxiago eta azalpen gehiago ematea da, erabiltzaileak ohitu eta ikas dezaten".

TAO zerbitzua 10.00etatik 20.00etara izango da Portuan eta Alde Zaharrean, eta Benta Zaharreko aparkalekuak 24 orduz funtzionatuko du.

"Erabiltzaileak kreditu txartelarekin ordaintzeko aukera izango du" errepikatzen du Javier Altunak, Udaltzain buruak. "Azken generazioko makinak dira; autoaren matrikula jarri eta informazio horrekin, kudeaketa zentrutik autoa non dagoen jakin ahal izango da hiritarrak edo bisitariak non dagoen gogoratzen ez badu".

BAZ-en ordutegi berria larunbatetan

Bezzeroaren Arreta Zerbitzua hemendik aurrera larunbatetan 10.00etatik 13.00etara irekiko da. Orain arte 9.00etatik 13.30etara irekitzen zen eta martxoaren 8tik aurrera 10.00etan da irekiera ordua.

Astelehenetik ostiralera, 9.00etatik 13.30etara eta 16.00etatik 18.00etara irekiko da, orain artean bezala.

Hemendik aurrera HONDARRIBIA aldizkaria zure etxean **dohainik** jaso nahi baduzu, bete ezazu harpidetza-txartel hau eta bidali edo eraman Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

HARPIDETZA TXARTELA

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Kasino Zaharrak Cabarceno-ra bidai bat antolatu du

Kasino Zaharra Jubilatuen Egoitzak irteera bat antolatu du apirilaren 2rako. Cabarcenoko Parke Naturalera abiatuko dira jubilatutak. Irteera goizeko 7.30etan izango da Alamedatik, eta bazkaria 14.30etan Los Elefantes jatetxean. Arratsaldez animaliei bisita bat egingo zaie. Hondarribira itzultzeko ordua 21.30ak izango da.

Izena emateko martxoaren 12tik 29ra izango da, plazak bukatu arte, Adinekoen Etxeko bulegoan. Pertsona bakoitzak 2 izenemate gehienez egin dezake. Astelehen, asteazken eta ostiraletan irekitzen da bulegoa, 10.30etatik 12.00etara.

Kuota 26 eurokoa izango da, autobusa, sarrerak eta bazkaria barne.



Animali espezie desberdin asko ikusi dituzte jubilatuek

Gazte informazio bulegoak 'buzoia' abian jarri du

Hondarribiko Gazte Informazio Bulegoak iradokizunak, galderak, kontsultak... egiteko BUZOI batzuk jarri ditu herrian zehar. Gazte Informazio Bulegoari galderak egiteko ez ezik erabiltzaileek beren iragarkiak, proposamenak ... jasotzeko ere tresna ezin hobea da BUZOIA. Hondarribiko gazteek hainbat gairen berri izateko aukera dute.

Erabilera erraza dauka: bi aukera daude, Bulegoak utzitako orri eredua jarraitzea edota orri txuri batean idaztea. Datuak jarri ondoren beheko lerroetan idatzi beharko da, galdetu edo komentatu nahi dena. Eta bukatzeko, idatzi den orritxoa buzoiaren ahotik sartu. Astean behin, Gazte Informazio Bulegoko informatzaile batek BUZOI-en mezuak jasoko ditu, eta emailaz edo telefonoz erantzunatu ditu.

BUZOIak hiriko zenbait tokitan jarri dira: Zuloaga etxean (liburute-gian), Kiroldegian, Sainduan, KZ gunean, Talaia Institutuan, Ama Guadalupekoa Bigarren Hezikuntzako solairuan eta San Jose ikastetxean.



Gazte Bulegoko buzoi

moda

a-dos

Calle Zuloaga, 14
20280 Hondarribia (Gipuzkoa)
Tel.: 943 11 19 69

AXOLA

INMOBILIARIA AGENTZIA

Salmentak
erosketak eta
alokairuak

San Pedro, 1 - Hondarribia
Tel.: 943 11 03 38 - 669704686 - 619411542

Alkatea bizilagun eta hainbat elkarterekin bildu da

Azken asteotan Aitor Kerejeta alkatea hiriko bizilagun eta elkarteekin bildu da. Done Pedro Itsas Gizonen Kofradiarekin hasi zuen bilera-sorta, ondoren Mendeluko bizilagunengana hurbildu zen, eta handik Alde Zaharrera eta Amutera. Ekimen honen helburua elkarte eta bizilagun hauek dituzten duda eta arazoak hurbiletik ezagutzea da, eta ahal den neurrian erantzunak ematea.

Topaketa hauetan, Kerejetak auzokoei Udalak bere auzorako zer nolako ekimenak dituen azaltzen die. Aurretik iazko maiatzeko hauteskundeetan ondoren Udalak egindako lana azaltzen die. Bilera amaitzeko, Kerejetak bizilagunek izan ditzazketen kexa edo iradokizunak entzuten ditu. "Norberaren arazo txikiak izaten dira, baina Udaletik garrantzitsuak diren arazo hauek konpontzeko beharra daukagu, eta zentzu horretan ulertu behar dira bilera hauek" esan du Kerejetak.

Datozen egunetan, Portua eta Ondartza bizilagun elkarteak bisitatuko ditu alkateak. Erabat irekiak dira bilerak.



Aitor Kerejeta Klink Elkartearen.

Endarako urtegia ireki da segunduko 600 litro jaurtitzeko



Urtegiak Hondarribiko ura bermatzen du

Martxoa azken 50 urteotako hilabeterik euritsuenetakoa izan da. Hala diote datuek, eta horren ondorioz, hainbat izan dira bere ateak ireki behar izan dituzten urtegiak. Horien artean Endarako dago, Bidasoa bailarako ur zerbitzua bermatzen duena.

Martxoaren 27an bere ateak ireki behar izan zituen, segunduko 600 litro ur jaurti zituen Bidasoa ibaira, urtegiaren segurtasun maila mantendu ahal izateko. Hala ere, ur jaurtiketa hau 2007ko abuztuan gertatutakotik urrun dago, orduan 20.000 izan baitziren segunduko.

Gaur egun, Endarako urtegia toperaino beteta dago, %100. 1989. urtean eraikitako urtegia, Aiako Harrien atzekaldean dago, 5 milioi litroko gaitasuna dauka eta Irun eta Hondarribia hornitzen ditu.



Higer Bidea, nº 6 - 20280 Hondarribia
Tel. 943 642 712 - Fax 943 641 105
www.arrokaberri.com

ARRETXE



ERRETERIA

Larzabal 14 • 943 34 01 82

DONOSTIA

Zabaleta 54 • 943 28 65 72

HONDARRIBIA

J. Alonso 7 • 943 64 27 77

Mendelu 17 • 943 64 70 58

Ion Elizalde alkateordea Foru Aldundiko mendi ordezkariekin bildu da

Agenda 21aren diagnosia onartu ondoren, egokia iruditu zaigu gaian inplikatuak dauden zenbait administrazioekin harremanetan jartzea. Diagnosiaren 4. puntuan, Natur Inguruaren garapena aztertzen da. Hondarribiari dagokionez, ezinbesteko erreferentzia, alor honetan, Jaizkibel mendia da.

Honi buruz hitzegiteko, Ion Elizalde, Lehen Alkateordea eta Ingurugiro eta Agenda 21eko zinegotzia Foru Aldundiko Mendi Zuzendari Nagusia den Asier Arreserekin bildu zen.

Elizaldek dioenez, "lehen kontaktu honen helburua Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak eta Hondarribiko Udalak burutzen dituzten ekintza planak konpatibilizatzea da, horrela, jarduterako orduan, eta kontserbazio eta babes ekintzak burutzen ditugunean, bakoitzarenak diren esku-menak zeintzuk diren jakin dezagun. Etorkizuneko Hondarribiko Plan Orokorak, Udalaren gainetik datozen aipatutako babeserako eta aktuzio kontsiderazio guzti hauek jaso beharko ditu. Ia gehienak lehen urratsak ematen ari direnez, une egokia da lan guztia batera egiteko".

Gaur egun, Jaizkibel "Red Natura 2000" delakoaren barnean dago, eta horrek babes berezia eskaintzen dio.

Gipuzkoako Foru Aldundia Jaizkibelerako Ordenazio Plan bat burutzen ari da; ondoren egingo den ekintza planean Hondarribiko Udaleko Ingurugiro eta Landa Garapenerako departamentuen partehartzea izango du.

Elizalderen hitzetan, "beharrezkoa da Foru Aldundiaren ekintza plana eta gure Udalekoa denbora berean egitea. Hau izan da bileran jorratu den puntuetako bat. Gainera, aipatutako plan guzti hauek Jaizkibel mendiaren garapen, kontserbazio eta babeserako ezinbestekoak dira, eta horregatik, erakundeen arteko elkar-lana nahitaezkoztat jotzen dugu".

Era berean, Foru Aldundia eta Udalak duela hamar urte Jaizkibel mendiak izandako suteen ondotik izandako hobekuntza azpimarratu dute.



Ion Elizalde, lehen Alkateordea

Bandalismo ekitaldi ugari egin dira

Martxoan zehar hainbat bandalismo ekitaldi burutu dira Hondarribian. Udaltzaingotik esan zaigunez, Itsasargi kalean, Ramon Iribarren pasealekuan eta Donostia kalean hainbat kontenedore lurrera bota egin dira.

Erreginaren Baluartearen, esertzeko banko handietako bat tokiz aldatua izan da, argiztapen fokoak urdinez margotu eta harriekin puskatu egin dira, gero papelerei tapa kendu zaielarik.

Kasino Zaharrean aldiz, babeserako hormaren zati bat puskatu eta harresitik behera bota egin da.



Kasino Zaharreko hormaren zati bat puskatu eta bota egin dute



BARRONDOARRIBI

AUKERA HAUNDIA BANDERILA
ETA KAXUELETAN

San Pedro, 31
Tel: 943 642705

20280 HONDARRIBIA



San Pedro, 27 20280 Hondarribia
Tel.: 943 642 102

Amaitu dira Baratza eta Itsasertzaren garbiketa proiektuak

Aurten ere, "EIN-Udal Korporazioak Enplegu Egitaraua" proiektuaren barruan Baratza eta Itsasertzaren garbiketa izeneko proiektuak amaitu berri dira, lau hilabeteko iraupena izan dutelarik, azarotik martxora bitarte. Lehenak hirugarren urtea bete du, eta bigarrenak, bederatzia. Amaiera ekitaldia duela gutxi ospatu da Zuloaga Etxean.

Litoral garbiketa proiektuan 5 lagunek parte hartu dute (4 langilek eta hezitzaile batek) eta Jaizkibel, Guadalupe, itsasargiaren ingurunea, ubideak, senaiak eta kai muturra egokitzea eta garbitzea izan dute helburu.

Baratza proiektua hezitzaile batek eta 4 langilek osatu dute. Proiektu honek helburu hauek ditu: nekazaritza ekoizpenaren mantenu lanen bitartez Baratz Komunitarioa sustatzea, ingurunearen eta lanabesen zaintza, apaingarri batzuk egitea, eta Baratz Komunitarioa hedatzea hiritarrek parte har dezaten.

Bi proiektu hauek Prebentzio Komunitarioko Udal Zerbitzuak koordinatu ditu, Hondarribiko Udalak eta EIN-k diruz lagunduak dira, eta Udal Departamendu batzuen laguntza dute.

Maite Pelaezek, Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak, bere poza azaldu du. "Ikusi besterik ez dago zer nolako ondorioak izan ditugun. Parte hartu duten pertsona guztiek lan bikaina egin dute, bere etxea balitz bezala zaindu eta garbitu dute dena".



Itxiera ekitaldian luntx bat eskaini zen



Proiektuetan lan egin duten langile eta erantzuleak

JATETXEA
LA HERMANDAD DE PESCADORES

Calle Zuloaga, 12 • HONDARRIBIA • Tel. 943 64 27 38

Foto Sistema



ARGAZKIAK
ORDU BETEAN

Itsasargi 3
 Tel. 943 64 57 65
 20280 HONDARRIBIA

Hiriko errepide sarea hobetzeko bilera mantendu da Gipuzkoako Foru Aldundiarekin

Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako diputatu eta bozeramaile den Eneko Goia Hondarribiko Udaletxean izan da duela gutxi Aitor Kerejeta alkatearekin lan bilkura batean. Bertan, bide azpiegituren azterketa egin dute, N-1 errepidea Gaintxurizketatik Oxinbiribil arte, San Pablotik Amutera doan N-1-eko errepide berria eta Aireportuko bidean egin beharreko zabaltzea izan direlarik jorratutako proiektuak.

Azken hau izango da egingo de lehen obra, 2008 urtearen amaieran edo 2009 haseran burutuko delarik. Bilerak errepide honen diseinua nola izango den zehazteko balio izan du.

Aitor Kerejeta alkateak "Foru Aldunditik azken urteotan egin den esfortzu handia" azpimarratu du. "Honek, gure hiriko sarrera eta irteeretan hobekuntza nabaria ekarri du. Esfortzu honek legealdi honetan jarraituko du, eta Aireportuko errepidearen zabaltzea honen adibide da" esan du.

Kerejetak, "Udaletik errepide hau ahalik eta hiri-
ra gehien egokitzen den zerbait izatea nahi
dugu, espaloï zabal eta bidegorriekin. Horrekin
batera, Amute eta Mendelu auzoak eta Damarri-
Alde Zaharra-Portua inguruak oinez lotzea bilatzen
da. Ez da ahaztu behar Amute eta Mendelun
2.500 pertsona bizi dirala, eta Irundik Hondarribi-
ra paseatzen etortzen direnak asko direla".

Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako diputatuak
aldiz, "Aldunditik Hondarribia eta Bidasoa baila-
rako errepideak hobetzeko etengabe lan egiten
dugula" esan du. "Azken urteotan proiektu
garrantzitsuak garatzen ari gara, hirietarako
sarrerak, irteerak eta zirkulazioak erreteko.
Muga izanda, arazo gehiago sortzen dira,
kamioiak direla eta, horregatik arreta berezia jartzen
dugu" gehitu du Eneko Goiak, "Hondarribiko
Udalarekin daukagun erlazio bikainaz poztzen
garelarik".



Eneko Goia Bide Azpiegituretako diputatua Kerejeta alkatearekin



**JAVIER
OPTIKO**

OPTIKA ETA OPTOMETRIAN DIPLOMATUA
OPTOMETRIA KLINIKOAN MASTERDUNA
KONTAKTUKO LENTEA

San Pedro, 6
Tel. eta Faxes: 943 64 37 75
20280 HONDARRIBIA



ENARA

INMOBILIARIETAN ADITUAK

www.inmobiliariaenara.com



San Pedro 1
20280 HONDARRIBIA
Serapio Mugika, 2
20302 IRUN

Tel. 943 64 39 72
Tel. y Fax 943 64 54 38
Tel. y Fax 943 00 46 28

Itsaskari baitak udaberriko hitzaldi saila antolatu du

Hondarribiko Itsaskari Baitak hitzaldi sail bat antolatu du martxotik ekainera. Sei hitzaldi desberdinetan, itsas salbamendua, atunaren arrantza, ingurunea eta meteorologia jorratuko dituzte zenbait adituk.

Martxoaren 29an, Jose Luis Solis, Kantauri Ekialdeko Itsas Salbamenduko Zuzendariak, itsas salbamenduaz hitzegin zuen, eta kirol portuan baltsa baten uretaratzea burutu zen ikastaro praktiko bat balitz bezala.

Apirilaren 11n aldiz, Iñaki Artetxe, AZTIko datuen lorpen eta kudeaketako arduradunak atunaren arrantza, markaketa eta askaketa aztertuko du.

Bi aste geroago, txanda Javier de Miguel-entzat izango da. Irun Telecom-eko zuzendariak, DSC-DUN VHF irratien arautegia eta erabilera azalduko du.

Maiatzaren 9an aldiz, Josu Santiago Eusko Jaurlaritzako Arrantza Zuzendaria etorriko da Itsaskari Baitaren lokalera. Bere hitzaldia, "Kirol Arrantza: eskubide eta betebeharrak" izango da.

Hitzaldiekin amaitzeko, ekainaren 6an, Javier Urkola inguruneaz ariko da, "Gure ingurunea atzo eta gaur: nondik gatoz nora goaz" izeneko hitzaldi batean.

Hitzaldi guztiak doakoak eta irekiak izango dira. Denak arratsaldeko 19.00etan izango dira, martxoaren 29koa izan ezik, 12.00etan izango baita. Informazio gehiagorako, 943 642788 telefonora deitu.



Ikastaro eskaintza oparoa prestatu du Itsaskari Baitak

Satarka eta Soroetako haur parkeak egokitzen ari dira



Duela gutxi bukatu da Satarkako parkearen egokitze lana

Udala Satarka eta Soroetako haur parkeetan zenbait lan burutzen ari da egunotan. Horrela, duela gutxi zenbait pertsonen egindako erasoan sortutako kalteak osatuko dira. Satarkako parkeko erasoan, haurrek asko erabiltzen zuten trena eta lurra kiskali egin ziren, eta orain berria erosi eta zorua aldatu egin beharko da. Bide batez, Soroetako parkeko zorua aldatu egingo da. Obraren aurrekontua 46.600 eurokoa da, eta epea bederatzi hilabeteetako. Juegos Kompan enpresa da burutzen ari dena, eta apirilaren erdirako bi parkeak berrituak egotea espero da.

Gaur egun, haur parkeak Amute, Soroeta, Satarka, Zezen plaza, Hondartza, Txiplau, Sokoa eta Labrederren kokatzen dira.

Ia 600 lagunek parte hartu dute Txingudi korrikan

Txingudi Korrikaren X. edizioa ospatu da martxoan. Hendaia hasi eta Hondarribiko San Pedro kalean amaitzen den lasterketa hau Gipuzkoako lasterketen zirkuito ez ofizialean egonkortu egin da.

Aurten lehen aldiz larunbatarekin ospatu da, hurrengo egunean hauteskunde eguna baitzen. Antolatzaileak beldur ziren ia egun aldaketak eraginik izango ote zuen, baina azkenean ez da horrela izan, ia 600 izan baitira parte hartu duten kirolariak.

Denetara 588 korrikalarik eman zuten izena, eta horietatik 561 iritsi ziren San Pedro kaleko helmugara, 12,2 kilometro korritu ostean. Euskadi eta Iparraldeko lasterkariak izan ziren gehienak, baita zenbait afrikar ere.

Azken hauetako bat izan zen garailean. El Miloudi Dahbi, 36 minuto eta 9 segundu erabili zituen froga amaitzeko. Lehenengo hondarribiarra, Iñigo Tumas Legorburu izan zen, 24.

tokian, 40 minutu eta 54 segundurekin. Unai Agirre Arinek hamasei segundo gehiago behar izan zituen helmugara heltzeko. Hirugarren herritarra, Aitor Arbelaiz izan zen, 42'43ko denborekin amaitu zuen lasterketa.



Lasterketaren une bat

Aise
BIDARION

Zentro psikopedagogikoa
Laguntza eskola

Miren Zabala

Juan Laborda 2, behea

20280 Hondarribia

Tel.: 943 64 05 65 - 656 71 22 92

E-mail: aisebidaso@euskalerria.org

**PINTXO, RAZIO ETA OGITARTEKOETAN
ESPEZIALIZATUA**

Bar Ignacio

**SAN PEDRO, 20 20280 HONDARRIBIA
TEL. 943 643 557**

JUANITO IRIAZABAL,

Gure Laguntza gobernuz kanpoko erakundearen aita



Ale honetarako elkarrizketa egiteko Juanito Iriazabalekin izan gara. Aragazkiak ezkerretik hasita lehenengoa da. Irudian ikusi daitekeen bezala, duela hilabete batzuk Udaletxera egindako bisita batean ateratakoa, alkate eta Gizarte Zerbitzuetako ordezkariekin izan ziren, bai Juanito bera, bere semea, eta nola ez, Ignacio Galdos, erakundearen ezinbesteko bigarren ardatza.

Juanito Iriazabal, GURE LAGUNTZA gobernuz kanpoko erakundearen funtsa da, Euskal Herrian behintzat. Hala ere, Ignacio Galdos jesuita da Indian erakunde honek bildu eta bidaltzen duen guttia kudeatzen duena. Beraiekin egon gara Indian hainbeste lan egin duen erakunde honi buruz jakiteko. 35 urte daramatza Juanitok besteen alde lanean, eta orain bere semea du lagun, baita zenbait adiskide ere, bakoitzak ahal duena egiten. Bere garaian Kerizpe futbol taldeko aurrelaria izandakoa, baita Kosta konpainiako kapitaina ere, Juanitok 87 urte ditu, eta sasoiko dabil hara eta honara.

Noiz sortu zen Gure Laguntza gobernuz kanpoko erakundea?

Hemen paperetan ikusten dudanez, lehen bidalketa 1968ko abuztuaren 11n egin genuen. Argazkia ere badugu, zenbat aldatu diren gauzak, bai hemen, eta batez ere Indian. Erakundearen erregistro ofiziala 1991n egin genuen, baina askoz aurretik hasi ginen behartsuenekin lanean.

Indiarekin egiten al duzue lan?

Bai. Hasieratik hasi ginen hemen biltzen genuen materiala hara bidaltzen. Beti nere dirutik ordaindu izan dut bidalitakoa.

Beti gustatu izan zait lan egitea, baina besteen aldeko lana baldin bada, hainbat eta hobeto.

Ignacio Galdos jesuita han dago, ezta?

Horrela da bai. 60 urte daramatza Indian. Honek bai egiten duela lan besteen alde. Izugarrizko gizona da, edozer egin daiteke gizon honen alde. 18 urterekin joan zen bere Aretxabaletatik Indiara, eta han egon da orduz geroztik. Noizean behin etortzen da, duela aste pare bat hemen egon da, urrutirago joan gabe.

PANADERIA - OKINDEGIA
ARRATIBEL



" EGURREKO LABEA "

Barrio Mendelu - C/ Zubieta, 12
Telf: 943 64 19 75 - HONDARRIBIA



Cafetería - Restaurante
faro de higuier

PLATER KONBINATUAK - EGUNERO MENUA
ARRAINAK - HARAGIAK

Carretera del Faro, 58 - Teléfono 943 64 01 94
20280 HONDARRIBIA



Ikastetxe eta ospital asko eraiki ditu Galdosek Indian, hau adibidez

Zer bidaltzen duzue erakundetik Indiara?

Nere kontuek diotenez, 998 kaxa bidali ditugu, eta denetatik gainera, arropa, medikamentuak, kontserbak... Han gehien behar dutena izan da bidaltzen duguna.

Zer moduzko gizona da Ignacio Galdos?

Izugarria. Nik edozer gauza egingo nuke berak hala eskatuta. Ezin da imaginatu ere zer nolako lana egiten ari den Indian. Haseran Zankhvav herrian lan egin zuen 20 urtez. Herria berak altxatu zuen, ikastetxeak, ospitalak, errepideak konpondu, ur horniketa... Duela 20 urte handik joan zen pertsona bat berriz bueltatzen bada, aldaketa nolakoa den ikusiko du. Gero, Unai izeneko herrira joan zen, han ere beste hogeitau urte eman ditu, antzeko gauzak egin dituelarik. Baina egiten dituen lanak, badu berezitasun bat.

Zein da bere lanaren berezitasun hori?

Ignacio Galdos-ek proiektuak egiteaz gain, Indiako jendearen-

gan formakuntza lana egiten du, hau da, bertoko jendea hezi egiten du gai desberdinetan, egindako lanak etengabe aurrera jarrai dezan, eta bertan behera geratu ez dadin.

Zer nolako laguntzak jasotzen ditu Gure Laguntza erakundeak?

Azken urteotan Hondarribiko Udalaren laguntza jaso dugu. Askok eskertzen dut nire herriko Udalak ematen didan laguntza, eta guk baino gehiago, Indian dagoen jende gaixo honek eskertzen du. Hango beharrak izugarriak dira, eta bidaltzen diogun gutzia gutxi da bere beharrak asetzeko. Hala ere, honetan jarraituko dugu, nik ahal dudan artean, eta gero nire semeak. Irungo Udalak ere laguntza ematen digu.

87 urte ditu Juanito Iriazabalek. Berarekin hitzeginda, burura etortzen zaiguna zera da: horrelako gizonak agintari izango balira, ez litza-teke gerrarik egongo munduan, ezta gosez hiltzen den haurrik ere. Dena den, hau ez da horrela, eta Juanito bezalako gizonak ezinbestekoak bihurtzen dira gobernu kanpoko erakunde bidez laguntzen dutelako. Semeak jarraituko du aitaren lanarekin, ez du lan gutxi izango harek egindakoa berdintzen.

podologoia

Unai Ortiz

kiropodia - quiropodia
ortopodologia - ortopodologia
ordenagailu bidezko miaketa
biomekanikoa
exploración biomecánica
computerizada

Matxin de Arzu 10, 2 bajo
20.280 HONDARRIBIA

Tel: 943 111 946
www.unaipodologoia.com

1.690 €

EUSKO-MEKO

**Boogies
QUADS
125 cc**

1.290 €

Txiplao nº 7 - Telf 639 676 676
Hondarribia

Pasadizoa



Martin Iturbe

I dazki hau argitarako denerako pazko-aleluiak kanpaiak joaraziak izango ditu. Badu, hala ere, zerikusirik pazko-arekin, aipatzera noanak. Jai haundiak alde zurretik prestatzen bait dira, hausterre egunez hasten da Pazkoarako igo-bidea.

Ekintza eta ezaugarri ugari erabili ohi dira gure artean; hautsa ezartzearena izan ohi da, garizumako ekintzen barruan, lehenengo ohikunea, elizako ospakizunetan. Gaur egun galdu antzean daramagu ekintza honek bere mahaian duen esanahi sakona. Apaltasunez hasten den bideak, gailurrean dagoen jai dizdiratsua du begien aurrean. Dena den, pasadizoa kontatzera nator.

Bedaion gertatu zen. Hausterre eguna, aste egunez gertatzen denez gero, berari dagokion ospakizuna hurbileneko igandean burutu izan da gure herri txikietan. Bedaio, auzo-herria, Tolosa bere nagusi-buru, Ugarte-Amezketaren atarian aurkitzen da.

Buru aldetik zati-erdi egiten duen Zarateko pasadizoa dago: sarbidez aurrera bi mendi-hegal, eta erdian sakana. Hain baztertua herri-auzo hau, urte askoren buruan ahaztua bezala izan zuen Tolosako haundi jendeak. Hainbestearino, Gipuzkoan errepidea egin zeneko azkeneko herria izan da (merezi ote zuen gehiagorik? Nire aita jaio zeneko herriari zerbait gehiago opa diot nik).

Apaizik ere ez izatekotan, ez du apaizik bertan. Hamabostean behin emakume jator batek egiten ditu igandeko ospakizunak.

Hausterre egunaren ondoko igandean, beti bezala, gure Ixabel, ordurako han zen. Txondarraz aberats zen auzo honetara, Ixabelek berak eraman zuen, buruetan ezartzeko hauts izpiaren zipriztiña. Bedeinkatu ere bai hausta? Ez ote dugu denok bedeinkazio-hitzak esan ahal izateko hainbeste ahalmen eta eskubide? Bai noski!

Egunari zegozkion gogoetak egin ondoren, eliz-otoitzez hautsa bedein-katu eta, hitz egokiz, legezko hitzez noski, herritar guztiei hautsa ezarri zien apaiz-andreak, Ixabelek. Eta berari nork ezarriko zion? Ez zen itxurazkoa nork bere burua konbidatzean, zuzenean bere buruari hauts bedeinkatua ezarriaz:

"Nik ezarri dizuet hautsa zuei; neri zeinek ezarriko dit?". Seguruenik, bere ustetan, gauzak ez zukeen irtenbiderik, nolaz eta, guztien harridurarako, aulkietatik hamasei urte-tako mutiko bat jaiki eta aldarera inguratu ez balitz.

Jatortasun garbiz eta ausardi ezezagunez, aldarera igo eta esan zion Ixabeli: "Nik ezarriko dizut zuri hautsa".

Harri eta zur egina, Ixabel honela mintzatu zitzaion: "Bai al dakizkizun zuk, hautsa ezartzeko erabili behar diren hitzak?". Mutikoaren erantzuna: "Bai, badakizkit".

Eta hala, "bihotz berritu zaite eta sinistu ebanjelioa". Eta hautsa jarritz, barne-zirrara ezin esanekoak larru-mamiak zimurtarazi zizkion Ixabeli. Eta hartarainoxe poztu zuen gertutasunak, berak dioenez, "Aita Santua bera, helikoptero batean, Erromatik etorri eta Bedaioko aldarean pausatuz, hautsa ezarri izan balio, ez ziokeela hainbesteko pozik eman izango".

"Gauza txiki askok, leku txiki askotan, jende txiki askok eginda, mundua eraberrituko lukete" dio Eskoziako esaera batek.

Zorionak Ixabeli, zorionak mutikoari. Leku txikietan ere gauza handiak egiten dira gure artean.

TRUCK
DISCOTECA
HONDARRIBIA

Foru Kalea z/g

PUB
Kai zahar
Almirante Alonso, 12

kai zahar

ARRAUN ELKARTEA
GIMNASIOA

AEROBIC, SPININ, FUNKY, HIP-HOP,
BODY BUILDING, BODY COMBAT,
MUSKULAZIOA, MANTENIMENDUA,
MASAJEAK, SAUNA, PIRAGUEN ALOKAIRUA
ETA GORDELEKUA

"ZURE GIMNASIOA HERRIAN BERTAN" !!!

Hondarribia Arraun Elkartea - Tel. 943 64 01 61 - 20280 Hondarribia

Saharako haurrak etxeetan hartzeko zortzi familia behar dira



Iaz Saharako hurrei Udaletxean egin zitzaien harrera ekitaldiko irudia, familia eta udal ordezkariekin

Udaleko Gizarte Zerbitzuetan aditzera ematen denez, aurtengo Oporrak Bakean 2008 programarako 8 familia behar dira. "2000. urtean hasi zen ekimen hau, eta aurten ez da familia errepikatzailek egon, eta beraz, programaren aurkezpena aurreratu egin da, zortzi familia behar ditugulako" esan du Maite Pelaezek Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak.

Orain artean Tadamun Elkartarekin lan egin zen proiektu honetan, baina elkarteak desegin denez, orain Udalak enpresa bat kontratatu beharko du. Aurrekontua 9.000 euro-

koa da, iaz baino 500 gehiago. "Programa zabaltzen hasi gara" dio Pelaezek. "Ikastetxe eta supermerkatuetan kartelak jarri ditugu, eta familia hauen bila gabiltza. Pena izango litza-teke familia hauek ez lortzea eta haurrak Hondarribira ez etortzea".

8 eta 12 urteko zortzi haur dira etorriko direnak. Uztailean eta abuztuan egoten dira gure artean. Informazio gehiago, apirilaren 3an, Zuloaga Etxean arratsaldeko 19.00etan bilera ireki eta informatibo bat egingo du Udalak. Saharako haurrak e gure laguntza behar dute.

EGURALDI TXARRAK OSTIRAL SANTUKO PROZ

Gipuzkoan Aste Santuko prozesio ezagunenakl Segura eta Hondarribian egiten dira. Asko izaten dira ostegunean herri batera eta ostiralean bestera hurbiltzen diran bisitariak. Eguraldia ezinbesteko faktorea izan ohi da eta aurten hala izan da. Ostegunean Segurakoa kaletik ospatzeko aukera izan zen, baina ostiralean, gurea, Hondarribikoa, kaleetan zehar egin beharreko ibilbidea bertan behera utzi behar izan zuen. Jasokunde eta Sagarrondoko Andre Mariaren Parrokian burutu



ESIOA ELIZ BARRUAN EGITERA BEHARTU ZUEN

behar izan zen, azken urteotan behin baina gehiagotan gertatu den zerbait da gainera.

Bi izaten dira jende gehien biltzen dituzten ekitaldiak. Ostiral Santuko prozesioa eta igandeko Ttopara. Hala ere, Aste Santua ez da hori bakarrik izaten, irudiotan ikus daiteken bezala. Herritar askok parte hartzen du, protagonista zein ikusle bezala. Urte bat itxaron beharko da berriz Alde Zaharreko kaleetatik prozesio hau berriz ikusteko.



Eguraldi txarrari aurre eginez Guadalupen



Haur eta gazteentzat joko ugari antolatu ziren



Egaña eta Lizasok bertso saioa egin zuten, trikitilarien animoekin

Pazko astelehena jai egun ederra izan ohi da Guadalupen. Euri asko egin duen Aste Santuan, azken eguna izan da euritsuena. Egun osoan zehar erori bada ere, antolatzaileek aurpegi ona ipini, eta ekitaldi guztiak garatu zituzten. Hona hemen irudi batzuk.



Pello Etxeberria, herriko aizkolaria, gogor lanean

mandragora^{studio}

t. 943 644 639 m. 629 564 723
unai mandragorastudio.com
www.mandragorastudio.com
matxin de arzu 14 20280 hondarribia

eukenioptika

optiko - optometristak

San Pedro, 57.

20280 Hondarribia - Gipuzkoa

943 643 805

Kandido Sasetaren gorpuzkinak aurkitu dira 71 urte ondoren

Aranzadi zientzi elkarteak jakitera eman duenez Kandido Saseta Eusko Gudarosteko Komandantearen gorpuzkinak aurkitu zituzten martxoaren 8an, Asturiasko Areces izeneko lekuan. Donostian egindako prentsaurrekoan aurkikuntza-ren xehetasunak eman dituzte eta bertan izan dira Kandido Sasetaren Aldeko Taldeko kideak eta gudari hondarribiarraren senideak, besteak beste.

Saseta Hondarribian jaio zen 1904an eta militar profesionala zen. Gerra Zibila hasi zenean Eusko Jaurlaritzaren esanetara jarri zen eta Eusko Gudarostea antolatu zuen; Kalamua eta Intxortako fronteetan aritu zen borrokan. Espainiako Gobernu errepublikarrak aginduta Asturiasera jo zuen ondoren, hiru euskal batailoiekin eta komandante karguarekin. Herrialde hartako operazio garrantzitsu batean hil zen frankistek tirokatuta, 1937ko otsailaren 23an.

Gaur arte ezin izan dira Saseta eta berarekin hil ziren 80 gudarien gorpuzkinak aurkitu. Hondarribiko kanposantuan hiliarria dago jarrita bere omenez. Hain justu, haren ondoan Jose Bergamin idazle eta buruzagi errepublikararren hilobia dago eta bi pertsonaia garrantzitsu horiei omenaldia egiteko asmoa azaldu zuten joan den urtean hainbat eragilek.

Saseta Etxeberria, Kandido

Kandido Saseta Hondarribian jaio zen 1904ko abenduaren 13an eta Asturiasko frontean hil 1937ko otsailaren 23an. Espainiako armadan intendentzi kapitaina izan zen. Espainiako Gerra zibila piztu zenean Kandido Sasetak Eusko Jaurlaritzari eskaini zion bere burua Eusko Gudarosteetan esku hartzeko. Militar prestaketa zeukan abertzale bakarrenetakoa izan zen bertan. Abuztuaren 5ean iritsi zen Loiolako Santutegira eta bertatik Zarate, Belkoain, Ernio, Lekeitio, Kalamua, Eibar, Intxorta, Ubidea eta Itxaindioko babeslerroak eratzen ibili zen. Bitan zauritu zuten: bata Andatzen

(Andoain) eta Legution (Araba) bigarrena. Valentzian zegoen Errepublikako gobernuak eskatuta Asturiasera abiatu zen.



Kandido Sasetaren irudi bat

Sasetaren karisma handia ez zen Jaurlaritzaren batailoietan bakarrik mirestua; EAE-ANVko gudari abertzale, CNTko sindikalista, PSOEko militante eta PCEko milizianoen artean ere miresten zuten. Asturiasera joan zedin eskatutakoan Agirre lehen-dakaria ataka gaiztoan jarri zuten Jaurlaritzako eskuindar eta kristau integrismoaren aldekoek. Haien ustez, euskotarrek Malato zuhaitzaz haratago zein Euzkaditik kanpo ez gudukatzeko Aitorren, Jaun Zuriaren, Haroko Diegoren eta antzekoen lege zaharra edo zaharkituari men egin behar zitzaion. Saseta Aracesen hil zuten oste frankistek eta berarekin batera 55 gudari. Telesforo Monzonek kanta bat eskaini zion eta Eustakio Mendizabal "Txikia"rekin parekatu zuen:

"Saseta hil zen gudarien aurrean, Mendizabal hil zaigu bakarrik, baina biak daukate herri osoa, atzo eta gaur euren atzetik..... Geroari esaiok olatuetan Herri-izarrak ez direla itzaltzen, gure haurrek bihar-ko ikastoletan heien izenak abestu ditzaten, arantzetan biak hil baitziren".

ILEAPAINDEGI MISTOA

LAIDA

San Pedro Kalea, 71 - behea
20280 HONDARRIBIA
Tel. 943 64 13 59
(Aurretiaz ordua eskatu)

Ireki Berria !
Ireki Berria !

MA SAI **estetika masai zentrua**

Irantz Arriabarrena

San Pedro 30 20280 HONDARRIBIA
(sarrera Zuloagatik/entrada por Zuloaga)

t 943.646.320



Done Pedro itsas gizonen kofradiaren inguruan

San Pedroko Itsasgizonen Kofradiak bere barnean dauden itsasontsietan lan egiten duten arrantzaleak elkartzen ditu. Irabazi-asmorik gabeko erakunde honen helburu nagusia Kofradiako kideen beharrei erantzun ematea da. Hornidura, tresna, izotza, aholkularitza, erakundee-kiko harremanak eta abar. Kofradiak arrantzalea bere lan gogorrerako ahalik eta hobe prestaturik egon dadin lan egiten du, talde honen interes eta beharrak taldekatuz.

Kofradiako instalazioetan arrainaren deskarga lanak eta enkantea, izotz eta gasoleoaren banaketa eta bestelako portu zerbitzuak burutzen dira. Hondarribiako itsasontziak ingurugiroarekin oldarkor ez diren teknikekin konpromisoa dute, arrantza baliabideen jasangarritasuna bilatuz. Honez gain, Kofradia stocken segimenduetan elkarlanean ari da, kalen egoera zein den benetan jakiteko.

Teknika hauekin batera, ontzidiak lortutako arrainaren kalitate gorenaren bila ari da. Horretarako, bikaintasunaren atzetik dabil bai arrantzan bai erabileran, trazabilitate sistema fidagarriekin batera. Guzti honek Kalitate marka dakar ondorio gisa

Arrapaturiko espezieetariko batzuk dira: antxoa, berdela, hega laburra eta hega luzea, beste espezie batzuen arrapaketak garrantzi handia du ere, hala nola sardina eta txitxarroa.

Martxoaren hasieran eta ekainaren erdialdera arte, ontzidia antxoa, sardina, jurela, berdela eta abarreko antzeko espezieetan lanpetuta dabil. Momentu horretan hega laburraren eta hega luzearen arrantza sasoia hasten da. Espezie honen sasoia Azaroaren amaiera arte luzatzen da

ARRANTZALE KOFRADIEN OTSAILEAN SALDUTAKO ARRANTZA KOPURUAK

Txitxarroa (*Trachurus trachurus*): 3885,40 kilo.
Berdela (*Scomber scombrus*): 2.323.690,60 kilo.
Boga (*Boops boops*): 135,90 kilo.
Makarela (*Scomber japonicus*): 232,80 kilo.
Korrokoia (*Chelon Labrosus*): 17.543,90 kilo.
Lupina (*Dicentrarchus labrax*): 26,20 kilo.
Sardina (*Sardina pilchardus*): 51.286,80 kilo.
Zapoa (*Lophius*): 1.718,10 kilo.
Muxar handia (*Diplodus sargus*): 844,80 kilo.
Bestelakoak: 230,50 kilo.

(Fermin Olaskoagak jasotako datuak)



La **bacaladera** S.A.U.



Arraun elkarteko zortzikoak londresen lan bikaina egin du

Hondarribia Arraun Elkartea Londresen egon da duela aste batzuk. Bertoko "Head of the River Race" estropadan parte hartu zuen, baita lan bikaina burutu ere, 13. tokian sailkatu baitziren hondarribiarrak. Bertoko Tamesis ibaian ospatzen da, eta bere lehen edizioa, 1926. urtean izan zen.

Ordutik hona urtero egin da, 1940-1945 bitartean izan ezik, II. Mundu Gerra dela eta. Duela bi hamarkada, oso eguraldi txarra egin zuen urte batean ere bertan behera geratu zen.

Estropadaren distantzia osoa 6.000 metrokoa da, gure uretan egiten diren estropadak baina 450 metro gehiago. Duela egun gutxi ospatu den Oxford eta Cambridgen arteko leiha ospetsuaren ibilbide berdinaa egiten dute partehartzaileek baina itzulerako zentzuan, Mortlake eta Putney-ko zubien artean.

Aurtengo edizioan 420 traineruk hartu dute parte, denetara 3.720 arraunlari. Senior kategorian, Hondarribia izan da Euskal Herriko traineru bakarra, eta Espainiatik Vigo, Banyoles, Astillero, Tortosa, Amposta, Tarragona eta Universidad de Barcelona izan dira Ingalaterran.

Ekaitz Aznar, Iñigo eta Gorka Vértiz, Imanol Mujika, Beñat Elzo, Arkaitz Goñi, Iñaki Gonzalez eta Mikel Orbañanos izan ziren arraunlariak, eta Borja Jorge patroia.



Tamesis ibaian zehar irudi eder batean



Hondarribiko arraunlariak gogor Londreseko uretan

EXPERT
GEURIA

SUKALDEKO ALTZARIAK
Tel. 943 64 07 14

ETXETRESNAK
Tel. 943 64 33 86

San Pedro, 3 • San Pedro, 4
20280 HONDARRIBIA



jatetxea • restaurante
erretegia • asador
itsasargi 8 • 20280 • hondarribia
tel. fax 943 644 622 • kaialde@yahoo.es

Hondarribiarrak Gurs-eko kontzentrazio zelaian



Koldo Ortega

Gehienok izan ditugu Bigarren Mundu Gerrako nazien kontzentrazio zelaian berri. Mauthausen, Auschwitz... dira ezagunenak, baina Zuberoatik oso hurbil, zelaia bat eraiki zen 1939an: Gurs. Ez litzateke zuzena izango adibidez Auschwitz eta Gurs parez-pare jartzea, ez baitzen azken honetan Alemania eta Poloniako zelaietan zeuden egoera negargarri eta krudelen antzekorik. Hori dela eta, "Harrera Zelaia" deitu izan zaio ere. Hala ere, itxita, inolako askatasunik gabe eta inongo errurik gabe han egon behar izan zuten milaka pertsonak. Ez dedila berriro gerta horrelako ezer.

Espainiako Gerra Zibila amaitu baino lehen, milaka soldadu errepublikanoak, 1939ko urtarrilaren azken egunetan, erbesterako bidea hartu zuten Katalunian. Horiekin batera, emakume eta ume askok, mugaz bestaldera jo zuten Le Perthusetik, Bourg Madametik eta ohiko pasalekueetatik. Hori dela eta, Frantziako gobernuak, Francorena onetsi zuen egunotan, Gerra horren ondorioz suertatu zen erbesteratu uholderik handienari aurre egin behar izan zion. Argelés sur Mer eta Saint Cyprien bezalako Roussilloneko hondartzetan, hesi, itsaso eta soldaduen artean milaka errefuxiatu kokarazi zituzten, hondarraren gaineko kanpalekuan.

Horien masifikazio ikaragarriari aurre egiteko asmoz, Espainiako mugetatik gertu izanen ziren hainbat "Harrera Zelaia" eraikitzea erabaki zuten agintari frantziarrek: Gurs.

Zuberoatik 4 kilometrora zegoen Gursekoa hasi ziren eraikitzen 1939ko martxoaren erdialdean. Alde batetik, Oloron-etik Baionara doan errepidea, bestetik Hôpital Saint Blaisera Prechacq-tik doan bi bide horiei jarraituz eta laukizuzen luze bat osatuz, hesi ziztadunek, barneratuen eta libreen mundua banatzen zuten. Tartean suertatu zen orube horretan, azkar oso eraiki

zituzten 382 barrakoi, errefuxiatuak aterpetzeko eta beste 46 zaintza burutu behar zuten gordetzailentzat.

428 etxola horiek egurrez eginak zeuden erabat: egitura, hormak, gapirioak, behekoa eta gainekoa. 24 metro luze eta 6 metro zabal ziren barrakoietan 60 gizaki hala edo nola laketa-razten zituzten. Kontzentrazio esparru horren barruan 13 barnezelai, A-tik M-raino zihoazen hizkiekin izendatutu sortu zituzten, errefuxiatu talde desberdinak barneratzeko. Hasierako A, B, C eta D barrutietan, esate baterako, euskaldunak kokatu zituzten, Le camp basque deitutakoari izana eta izena emanez. E eta F multzoetan espagnols sartu zituzten; G, H, I eta J-koetan Nazioarteko Brigadistak; eta azken hiruetan, K, L, M hizkiak zeramatziten barrutietan, aviateurs direlakoak. Bistan denez, kolektibo handienak euskaldunek eta brigadistek osatu zituzten. Lehendabizikoak, beraientzat esparrua atondu zutenean, 6.555



Hesien atzean hainbat errefuxiatu

RESTAURANTE

ARRANTZALEEN KOFRADIA

Eguneko menua, Ekitaldiak, Ibilaldi belaontzian,
Menu bereziak, Komunioak

www.navegavela.com
Bela ikastaroak

Telf.: 943 64 42 12

Paseo Ramón Iribarren, nueva Ionia - 20280 HONDARRIBIA

Hemen zure opariak eros ditzakezu; PSP, PS2, filmeetako pertsonaiak...

The Big Orange

Puntuak opariengatik aldatu, Orange txartelarekin

Etxez-etxeko zerbitzua duen zure bideo kluba

baziren ere, laster hasi ziren Gursetik kanporatzen, inguruko herrietan eta bereziki, Ipar Euskal Herrian edo Landetan lana edo bizilekua topatu zutelako. Brigadistak, aldiz, euren herrialdeak -Alemaniara, Austria, Txekoslovakia...- nazien menpe zeudenez, bueltatu ezinik zeudelako, berehala osatu zuten iraungo zuen talderik populutsuena.

"Gurs, el campo vasco", Josu Chueca irakasle eta idazleak idatzitako liburua da. Bertan, Gurs-eko barrakoietatik igaro ziren euskaldunen berri ematen da, zerrenda luze bat gehitzen delarik. Zelaiaren egitura, historia eta nondik-norakoak zehazten ditu Chuecak. Milaka izan ziren bertatik pasa ziren euskaldunak, eta horien artean, nola ez, Hondarribia eta Irungo asko. Azken hiri honetakoak gehiago, Errepublikaren defendatzaile gehiago baitzeuden, edo gutxienez, gehiago iraun zuen borroka bertan.

Gurs-etik pasatako gipuzkoarrak 1304 izan ziren. Horietatik 417 donostiarrak ziren, eta gainontzekoak, probintziakoak. Aipagarria benetan, 362 Irungoak zirela. Beste 60 Eibarrekoak, 39 Tolosakoak, bat gutxiago Errenterikoak, 36 Arrasatekoak, 26 Bergarakoak...

Jarraian, Hondarribitik Gurs-eko kontzentrazio zelaira eramanak izan ziren pertsonen zerrenda luzatzen da:

Francisco Emery Arocena (UGT)
Jose Maria Etxaide Urdangaray (UGT)
Francisco Etxeberria Sagarzazu (UGT)
Leon Eceiza Etxebeste (UGT)
Salvador Eceiza Ruiz (IR/UGT)
Jose Mari Garmendua Aranzazu (UGT)
Candido Gende Sagarzazu (UGT)
Jorge Goikoetxea Oiarzabal (UGT)
Jose Mari Gonzalez Oiarbide (UGT)
Olegario Igotz Egoskozabal (UGT)
Felix Aramburu Ezponda (UGT)
Luis Argote Argote (UGT)
Agustin Aristizabal Balerdi (UGT)
Jose Mari Arozena Agirre (UGT)
Ignacio Caeiro Igotz (PNV)
Norberto Kanpandegi Gaztelumendi (UGT)
Luis Carraux Usandizaga (PSOE/UGT)
Jesus Carrera Olaskoaga (PCE)
Cayo Lasa Zala (UGT)

Jose Joaquin Manterola Etxeberria (PSOE/UGT)
José Marin Garcia (IR)
Jose Julian Olamaza Etxaide (PNV)
Pio Olazabal Alza (JSU)
Juan Oyanguren Sanchez (PSOE)
Miguel Oiarzabal Arrambide (UGT)
Felix Oiarzabal Olaskoaga (PNV)
Pedro Oiarzabal Zabala (UGT)
Juan Pezon Garcia (UGT)
Ignacio Sagarzazu Muguruza (UGT)
Diego Salazar Garcia (JSU)
Felix San Juan Pison
Julian Tell Perez (PNV/STU)
Juan Tife Manterola (UGT)
Jose Turegano Eresua (IR)

Gurseko bilakaera: Harrera zelai izatetik Auschwitzeko beste kate maila bat izatera

Hasieran, hau da, 1939ko apirilean, kolektibo guztiek Gurseko Harrera Zelaia behin behinekotzat jotzen bazuten ere, II. Mundu Gerrak sorrarazi zituen barneratze masiboek zelai horren jarraipena ekarri zuten. Are gehiago, Harrera Zelai izatetik jite errepresibo nabarmena izatera pasatzeko urrats latzak burutu zituzten Vichyko zein Berlingo agintariek.

Izan ere, Gurs, 1940ko urriaz geroztik, naziek pixka bat beranduago martxan jarritako Behin Betiko Amaiera bide infernutarreko gune nabarmenetako bat bilakatu zen. Alde batetik, Gursen bertan 1.176 barneratu hil zirelako. Bestetik, 1942az geroztik, heriotzaren trenen bitartez, 14.000tik gora gizaki, Gursetik abiatuta, Olorueko geltokian animaliak bezala bagoietan metatuta, Drancytik barrena, Auschwitzera heriotzera eraman zituztelako.



Kontzentrazio zelaia eraikitzen ari ziren unean aterarako irudi bat

OTXOA

JANARIDENDA

*Barazki, fruta eta
horrelakoetan aukera handia*

San Pedro 43
Tel. 943 64 16 84
20280 HONDARRIBIA

Ondare

• GOZOTEGI
• OKINDEGI ARTESANALA
• TERRAZADUN
KAFETEGIA
• HAUR FESTAK

C/Amute, 6 bajo
Tel.: 943 64 62 82
HONDARRIBIA

Bertsolaritza San Jose ikastetxean

2007-2008 ikasturte honetan hasi gara Bertsolaritza lantzen gure ikastetxean. Proiektuan parte hartzen dute Lehen Hezkuntzako 4. eta 5. mailako ikasleek. Ahozko komunikazioa lantzea da honen helburua, eta horretarako hainbat jarduera egiten ditugu ikastetxean bertan.

Gure asmoa izan da, halaber, bertsolaritza mundua haurrengana hurbiltzea eta mundu honen inguruan duten ezagutza garatzea; eta orain arteko emaitzak ikusita, helburua lortzen ari garela esan dezakegu. Hau dela eta, gelan sortutako bertso batzuk eskaini nahi dizkizuegu:

GAIA : HONDARRIBIA

GAIA: KIROLA

TURISTAZ BETERIKAN
DAGO BAI, HERRIA!
BATZUK PORTU ALDEAN,
BESTEAK MENDIAN.
ALDE ZAHARRAK ERE,
BADU HISTORIA,
ABERASTEN DUENA
TXIT HONDARRIBIA!

ARRAUNLARI BIKAINAK
DITUGU HERRIAN.
ARRAUNEAN DABILTZA
TXINGUDI BADIAN.
ITSASORATZEN DIRA
BETI ARRAUNEAN.
AUPA MUTIL JATORRAK!
HONDARRIBI FESTAN!

GURE HONDARRIBIA
DA OSO POLITA.
HORREGATIK ESKAINTZEN
DIOGU GUK KANTA.
JAIK IRISTEN DIRA,
GOAZEN ALGARAKA!
POZIK ETA KONTENTU
KALETAN DANTZAKA.

HEMEN HONDARRIBIAN,
ITSASOA DAGO.
HONDARTZAREN ONDOAN,
GAUDE EGUNERO.
BERTATIK IKUSIZ BAI,
MENDI ETA SORO.
ELIZA, GAZTELUA
IKUSTEKO GOGO.

GUSTUKO DUT KIROLA.
FUTBOLA SARTZEN DA.
JOKALARIAK ERE,
OSO ONAK DIRA.
ZALDIEN LASTERKETAK,
ZALDI BAT DA SHIRA:
HEMENGOA EZ DENA,
EGITEN DU BIRA.

BAI! GARRANTZITSUA DA
KIROLAN HASTEAK!
GORPUTZA JARTZEN ZAIGU
ERABAT GAZTEA.
GAZTEA DUT ERE BAI
BURUKO ILEA.
HORREGATIK EZ DUT NAHI
AMATXOK MOZTEA.

KIROLA GUSTUKO DUT
ETA ERE BEISBOLA.
TENISA BAITA ERE,
BAINA EZ IRAOLA.
LANA EZ DA KIROLA,
BAINA BAI FUTBOLA!
KORRIKA EGIN BEHAR DA,
HORI BAI KIROLA!

KIROLA POLITA DA,
KILO BATZUK KENTZEN.
EGON NAIZ GOIZ OSOA
GORPUTZA BEROTZEN.
JATERA ETORTZEAN,
PILOTA BAT HARTZEN.
JOLASTEN ARI NAIZ NI,
BAI ONGI PASATZEN!



Industria tresneria
Elektrizitatea
Giltzen kopiak
Torlojugintza inoxidablea

MARINEL

Burdindegia

Beñat Etxepare 12 / Txiplao 14
Tel. 943 64 17 88 20280 HONDARRIBIA

BAR ETXEBERRIA



Alde Zaharrean

Kale Nagusia, 27 - HONDARRIBIA

Granada zukuaren abantailak

Granada zukua askorentzat ezaguna izango da ziurrenik. Hala ere, gehienek ez dakigu zeintzuk diren granada zukuak dituen abantaila eta ondorio osasungarriak. Azken urteotan egin diren ikerketari esker jakin ahal izan da daukan propietate batzuen artean, odola purifikatzen duela, ateroma plaken eraketa saihesten duela, bihotzerre arintzen duela, digestioa egiten laguntzen diola, odol presioa erregulatzen duela, organismo bizkortzen duela, sistema immunologikoa gogortzen duela eta gaixotasun askoren sorrera saihesteko laguntza ona dela. Ikerketa zientifikoek, menopausiaren ondorioak saihesteko aukera ona dela diote ere, beti ere zuku bezala hartuta.

Alderdi nutritiboari dagokionez, bitamina A, B1, B2, B3, B9, C eta E delakoetan aberatsa da. Granada zuku edalontzi batek azido folikoaren %100 eguneroko dosia dauka eta A, C eta E bitaminaren dosi erdia. Fosforo, kloro, manganeso, silizio, zinc, kaltzio, magnesio, kobre eta burdinaren iturri handia da. Hala ere, granadak duen mineral ugariena potasioa da, jarduera muskularrentzat egokia eta nerbio-kinadarentzat beharrezkoa dena.

Bestalde, granada fibretan aberatsa da, kaloria eta karbohidrato gutxi ditu. Azido zitrikoa du (desinfektatzaile, pixaren alkalizatzaile, eta C bitaminaren indartzaile), maliko azidoa, flabonoide, eta taninoak (antioxidatzaile substantzia eta digestibo mukosen antiinflamatorioa eta lehorgarri propietate dauka). Orain artean probatu ez baduzu, orain duzu aukera egokia.

Laburbilduz, granadak eskaintzen dituen aukerak honakoak dira

- Antioxidatzailea
- Lehorgarria. Digestioari laguntzen dio.
- Garbigarria.
- Antiinflamatorioa eta antiseptikoa.
- Bihotz babeslea.
- Neurobabeslea.
- Antianemikoa.
- Estrogenikoa.
- Kondrobabeslea.
- Antikancerigenoa.



-SANITURI soja esnea 1 l: 1,95 €

2+1 dohainik eta 7+5 dohainik

-ECO-SALIN fruitu marmelada 325 gr: 3,68 €

1+1 dohainik

-LIMA gorri fruitu zukua + kaltzio azukerrrik gabe

1l: 3,65 €

1+1 dohainik eta 6+7 dohainik

-ECO-SALIN berde olibak 140 gr: 1,35 €

2+1 dohainik eta 3+3 dohainik

-BIOCOP intxaurreak 300 gr: 5,35 €

%50 unitate

-RAPUNZEL txokolate-intxaurreak, olo muesli

350 gr: 5,40 €

1 + 1 dohainik

-SOLE LUNA almendra pelatuak: 2,65 €

1 + 1 dohainik

-SANITURI soja flan 250 gr: 2,30 €

3 + 1 dohainik eta 4+2 dohainik

-Zereal-soja, banilla eta txokolate postre 500 gr:

3,95 €

3 + 1 dohainik

Arreta pertsonala

iHondarribian!

txuntxumela.
zure **SUPER B10**

ETKEZ ETKEKO ZERBITZUA
HENDAIA-HONDARRIBIA-IRUN

943 641450

Santiago kalea, 33. Hondarribia

biotxuntxu@terra.es

EUSKAL LIBURUAK EROSTEKO AUKERA OLEARSO LIBURUDENDAN



HONDARRIBIA IRUDITAN

Duela urte batzuk, udal artxiboak postal bilduma eskuratu zuen, XIX. mende bukaeratik, gure hiriko bizitza, arkitektura eta paisaia islatzen zituena. Proiektu honen bidez, postalak interesatuen esku egotea lortu nahi da. Hori dela eta, postal hauek CD batekin argitaratu dira. Postal hauek, gaika multzokatuak, Martin Iturbe jaunak eta Jesus Mari Mendizabal "bizargorri" k idatzitako olerki eta bertsoen sarrera dute. Gainera CDan, hiriko kulturaren ondarea diren hainbat musika biltzen dira. Idazkera, irudia eta musika bat egiten diren proiektua.



KARABANA BATEAN BIZI NAIZ

Daniel karabana batean bizi da gurasoekin, arrebekin eta aitonaarekin. Beti leku batetik bestera ibiltzen dira. Aitona asko maite du Danielek, nahiz eta batzuetan gogaitu egiten den haren historia zaharrekin. Aitonak jende ibiltarien kontu zaharrak berritzen jarduten baitu beti; beren bizimodua nolakoa zen garai batean, karroan ibiltzen zirenean behorrek tirata, edo suaren garrantzia, suak berotatsuna ematen baitu, eta denik eta sendabiderik onena baita, aitonaaren esanetan, bat gaixotzen denean. Danielek gustuko du karabanako bizimodu ibiltaria, abentura asko bizitzeko aukera ematen baitio horrek. Eta lagunei nola bizi diren kontatzen dienean, inbidia eragiten die guztiei.



EZ DADILA EGUZKIA SARTU

Gerrako lubakitik futbol-zelaira eramanean zituzten hainbat gazte 1937ko udaberrian. Futbolariak ziren denak ere, Espainiako ligan hainbat ekipotan jokatu ohi zutenak, baina baloia ordez fusila hartu zutenak, Euskadi eta Errepublikak defendatzeko. Agintariak, ordea, galtza motxetan jarri zituzten berriz, Euskadiko selekzioa osatzeko eta Europar barrena zenbait partida jokatuz mesede handiagoa egingo zutelakoan. Propagandaren partida inportantea baitzen gerra irabaztekoan, lubakiak bezainbat.



HONDARRIBIKO HISTORIA

Liburu honen bidez gure hiriaren Historia bildu nahi izan da era kronologikoan Histori-aurretik frankismora arte. Horretarako 15 historialariko taldearen lankidetzaz izan da Deustuko Unibertsitateko Jose Luis Orella irakasleak koordinatuta. Fidagarritasun historikoa duen liburua eta derrigorrezko kontsulta liburu bihurtzeko dena. Historialari taldea honako hauek osatzen dute: Jesus Altuna, M^a Mercedes Urteaga, Jose Luis Orella, Lourdes Soria, Manex Goienetxe, Antonio Prada, Carlos Larrinaga, Pedro Barruso, Alvaro Aragon, Iñigo Hidalgo, Maria Isabel Astizaran eta Txomin Sagarzazu.



PRAILEAITZ

Debako Praileaitz I aztarnategia babesteko liburu bat da. Artez betetako liburua, artea babesteko sortua. Egungo artistek sortua garai bateko artea ez galtzeko. Praileaitz I liburua Praileaitzen Lagunak elkarteak argitaratu du, arlo guztietako 210 artistaren ekarpenekin, euren lanarekin eta euren iritzi argiarekin. Luxuzkoa da kanpotik atzo aurkeztutako liburua. 29 x 29 zentimetrokoa, 240 orrialdekoa, azal gogorrekua eta hiru hizkuntzatara argitaratua, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez.



HONDARRIBIKO BASERRIAK

Hondarribiko udalerrian dauden baserri guztien bilduma da, agiri eta bizi izan ziren familia-zerrendarekin, eta abar... Fermin Olaskoaga, Luis Mari Elozei, Jose Ramon Gebara eta Koldo Ortega hondarribiarrek egindako lan bikaina dugu. 546 orrialdetan gure baserri eta aitzindariak buruz zerbait gehiago jakiteko aukera paregabea. Auzoz-auzo gaur egun dauden eta egon diren baserrien informazio zabala topatuko duzu bertan, ongi dokumentatua gainera.



**OLEARSO LIBURUDENDAN ESKURAGAI DITUZU
EUSKARAZKO LIBURU UGARI**

ETOR ZAITEZ ETA GALDETU!

San Pedro 12 - HONDARRIBIA

Telf: 943 64 25 25



Lehiaketa berria Gazte Bulegoan

LOGO BERRI BAT SORTZEKO LEHIAKETA DEIALDIA

Eusko Ikaskuntzak Ei Gazte! lehiaketaren lehen edizioa jarri du abian. Edizio honetan gazteria sailaren logoa diseinatzeko deialdia egiten du elkarteak. Baldintzak gutxi dira eta saria, erakargarria:

- Gaztea izatea (16 eta 30 urte bitartean).
- Gaitasun sortzailea eta gustu estetikoa izatea.
- Epea: Maiatzaren 15a arte.
- **Saria: 1500 euro.**
- Lanak Eusko Eusko Ikaskuntzako Gazteria Sailara bidali behar dira (Miramar Jauregia, Miraconcha 48. 20.007 Donostia)
- Informazio gehiagorako:
www.eusko-ikaskuntza.org webgunean edo **943 31 08 55** telefonoan.

2008an ATZERRIAN INGELESA IKASTEKO "MEC" BEKAK

Estatuko Hezkuntza eta Zientzi Ministerioak, MEC, 2008. urtean atzerrian ingeles ikastaroak egiteko beken deialdia luzatu du.

Ikastaroak egiteko epea ekainaren 1etik azaroaren 30era da eta gutxienez 3 asteak izan behar dira.
Beka bakoitza **1.650€**koa da.

ADINA: 18 urtetik 30era.
EPEA: martxoaren 27a

Info +: **www.infobeca.com** edo **www.mec.es**

ASTIALDIKO ZUZENDARIA IZATEKO IKASTAROA



Hezkide Eskolak Haur eta Gazteen astialdiko zuzendaria izateko ikastaroa antolatu du. Ikastaroaren egutegia 2008ko otsailetik maiatzera izango da eta Donostian izango da.

Informazio gehiago:

Hezkide Eskola, Heriz Pasealekua, 82. 20008 Donostia.

Tfnoa: 943 311474 / 311475 - Faxe: 943 311476

Posta elek.: hezkide@euskalnet.net - Web or.: <http://www.hezkide.org>

Prezioa: 250 €

Epea: Otsailaren 1a.



ONDARTZ EDERRA

Txiplao Industrialdea, 27 - HONDARRIBIA
Tel/Fax: 943 64 02 56

RAFAEL
TABERNA · BAR



San Pedro Kalea - T. 943 64 61 14
20280 Hondarribia

Nola izena du eraikin honek ?



Beste behin ere heldu gara irakurleak hain gustuko duen aldizkariaren atalera. Udal Euskara Zerbitzuan jasotzen den gutun kopurua ikusita, lehiaketan gero eta jende gehiagok parte hartzen duela ohartu gara. Ia gehienek gainera erantzun egokia ematen dute.

Iazko azken alean jarritako galderari ia 50 pertsonak erantzun diote era egokian. Jasotako gutun guztien artean, irabazlea **Miguel Labaien Ormaetxea** izan da. Bigarren saria, Euskara Zerbitzuko liburu-sorta, **Arantxa Bengoetxea Zubietaren** da.

Orain luzatzen dizuegun galdera beste bat da. Guztiok badakigu etxe hau non dagoen. Hainbat alditan handik igarotakoak gara, baina bere funtzioa izan du betidanik. Duela hilabete gutxi birgaitu egin zen. Ze izen dauka? Aski galdera erreza gaurkoan.

Erantzuna jakindakoan, bidali Udal Euskara Batzordera eskutitzez, apirilaren 15a aurretik. Helbidea honako hau da: Kale Nagusia, 20. Beko Errota jatetxean bi pertsonentzako afaria zuentzat izan daiteke eta.



**GOZOTEGIA
KAFETEGIA**

San Pedro, 4 - 20280 - HONDARRIBIA
Tel: 943 641 047



eguerdiko menuak
sukaldaritza berria
eguneroko plater berriak
gauetz, gure karta zabala, informala

telf.: 943 641 952

san pedro kalea, 79
20280 hondarribia

Butroi pasealekuaren historia laburra



Berriro ere Hondarribiko Udaleko Udal Artxibategira jo dugu bertan dauden altxor ikaragarriei irteera bat emateko asmotan. Oraingo honetan gure herriko inguru ederrenetako bat aukeratu dugu, Butroi pasealekua.

Udalak 1910eko otsailaren 27an erabaki zuen kale honi Butroi pasealekua deitzea. Hiriko alkate izan zen 1638ko setioan Diego de Butron. Aipatutako setioa luze zihoan, eta azkenean muniziorik gabe geratu zirenean, Alkateak etxean zuen zilar guztia eman zuen balak egin ahal izateko.

Beranduago, Donostiako eta Hondarribiko Gobernadore Militarra izan zen. Egungo pasealekua eta etxeak, 1897 eta 1899. urteetan egindako lehen zabaldurari esker egin ziren. Proiektu haren egilea Juan Jose Aginaga izan zen.

Etxean horrelako altxorrak dituen jendeak, eta gure aldizkarian argitaratuak ikusi nahi dituenak, Hondarribiko Udaleko Udal Euskara Zerbitzura bidaltzea besterik ez du, gustora asko argitaratuko ditugu eta.



okindegia • gozategia



kafetegia

San Pedro 49, bajo
20280 HONDARRIBIA
Tel. 943 641 995

Zuloaga, 8
20280 HONDARRIBIA
Tel. 943 111 656



M.A.G.
ASESORIA AGINAGALDE

San Pedro, 3 - Atzekaldea
943 64 03 66

GESTIOA:

- * KONTUHARTZAILEATZA, FISKALA
- ETA LANAREKIN LOTUTAKOA
- * ASEGUROAK

Otsaila2007

JAIOTZAK OTSAILEAN

3an: UDANE Moran Asenjo, Donostiako Javier eta Irungo Maria Estherren alaba.

4an: MIKELI Kanpandegi Oiarzabal, Hondarribiko Edorta Andoni eta Hondarribiko Maria Angelesen alaba.

12an: TELMO Aranburu Alza, Irungo Javier eta Hondarribiko Miren Nekaneren semea.

14an: ANDRES Laguna Cañizo, Donostiako Miguel eta Mexiko-ko Larisaren semea.

16an: TELMO Lazkanotegi Etxegoien, Hondarribiko Remigio eta Irungo Ainararen semea.

16an: ANAHI Iglesias Real, Santander-ko David eta Donostiako Franciscaren alaba.

18an: HODEI Huegoen Herce, Irungo Iñaki eta Donostiako Oihanaren semea.

16an: TASIO Agirre Hoyos, Hondarribiko Eñaut eta Hondarribiko Iboneren semea.

19an: AIZPEA Luquin Elosua, Iruñako Jose Carmelo eta Irungo Ainhoaren alaba.

27an: ELAIA Blanco Agirre, Hondarribiko Fermin eta Hondarribiko Zuhatzen alaba.



EZKONTZAK OTSAILEAN

16an: IGOR Atxukarro Gonzalez, Hondarribikoa, eta MARCELA Martinez Garmendia, Hondarribikoa.

23an: MANUEL Arreola Hernandez, Mexiko-koa, eta ELENA Guerra Pardo, Villarramiel-ekoa Palentzia.



HERIOTZAK URTARRILEAN

26an: MERCEDES Mengs Fiscowich, Hondarribikoa, 84 urte, Madrilen.

HERIOTZAK OTSAILEAN

2an: MARIA BETHSABE Gomez del Rio, Sanchomunio-koa Segovia, 74 urte, Murrua kalean.

3an: IGNACIO Oronoz Agirre, Hondarribikoa, 84 urte, San Pedro kalean.

4an: PAULINA Goikoetxea Aristimuño, Hondarribikoa, 89 urte, San Gabriel egoitzan.

4an: PEIO Ianzi Aranburu, Berakoa, 47 urte, Amute kalean.

13an: MARIA ANTONIA Bergara Salaberria, Irungoa, 87 urte, Itsasargi kalean.

15ean: ANGEL Valencia Villegas, Teruel-koa, 84 urte, Etxenagusia kalean.

20an: ANTONIO Ugarte Olazabal, Hondarribikoa, 86 urte, Jaizubiako Aranburutxiki baserrian.

21ean: JOSE MANUEL Sagarzazu Balerdi, Hondarribikoa, 66 urte, Almirante Alonso kalean.

25ean: BASILIA Gomez Lopez, San Pablo de la Moraleja-koa Valladolid, 87 urte, Puntale auzoan.

26an: DANIEL Gonzalez Etxeberria, Hondarribikoa, 87 urte, Zuloaga kalean.

29an: FRANCISCO JAVIER Zapirain Oiarzabal, Erreterriakoa, 71 urte, Soroeta kalean.





FERMIN OLASKOAGA
jasotako datuak:

HERRIKO BIZILAGUNEN GORA-BEHERAK OTSAILEAN

Altak:Jaiotzak: 10, eta kanpotik etorriak: 56.
Bajak:Hildakoak: 12, eta herritik joanak: 49.
Biztanle kopuru orokorra:16483 bizilagun.

OTSAILEKO UDAL LIBURUTEGIKO DATUAK.

Mailegatutako liburuak: 510 euskaraz,
1207 gaztelaniaz eta 14 bestelakoak. Guztira:
1721 liburu.

Ekarri diren liburu berriak: 58 euskaraz,
234 gaztelaniaz eta 2 bestelakoak. Guztira:
294 liburu.

Bazkide berriak: 14 gizon eta 12 emakume.
Horietatik 20 heldu eta 6 haur. Guztira 26.

Gehien mailegatutako liburuak:

Haurrak:

Euskeraz: KNISTER.- Kika supersorgi-
na eta zirkuaren magia.- Mensajero.

Gaztelaniaz: COUSIN, Lucy. - La casa
de Maisy.- Destino.

Helduak:

Euskeraz: MORILLO, Fernando.- Gloria
mundi.- Elkar.

Gaztelaniaz: GORDON, Noah.- La
bodega.- Roca.

OTSAILEKO EGURALDIAREN DATUAK.

Tenperaturarik gorena:22,6° C, hilaren 23an.
 Tenperaturarik beherena:1,8° C, hilaren 3an.
 Batez besteko tenperatura:11,7° C.
 Batez besteko hezetasuna:% 64.
 Euri-litroen kopurua:30,6 mm.
 Egunik euritsuena:hilaren 3an 14,0 mm.
 Euri indartsuenen uea:hilaren 3ko 21,3etan, 29,4 mm/orduko.
 Egunik euritsuak:9 egun.
 Elur egunak:0 egun
 Kazkabar egunak0 egun
 Ekaitz egunak0 egun
 Behe-lainoko egunak:4 egun
 Ihintz egunak:10 egun
 Zeru oskarbia:6 egun
 Zeru lainotua:17 egun
 Zeru estalia:6 egun
 Eguzki kopurua:163,3 ordu
 Batez besteko presioa:1023,2 milibar
 Presiorik gorena:1034,0 milibar, hilaren 6an
 Presiorik beherena:98,3 milibar, hilaren 3an
 Haizea >55 Km/ord5 egun
 Haizerik indartsuena:hilaren 3ko 16,02etan, 95 Km/orduko.

(Hondarribiko aireportutik jasoak).

joski

Lentzeria arropa
Haurrentzat arropa

Matxin de Artzu, 18
Tel.: 943 64 4846 - 20280 HONDARRIBIA





**URTE
25
ANOS**

Zure ospakizunak
ahaztezinak bihur
daitezen

1.982 - 2.007

25 URTE HONDARRIBITARREN ZERBITZURA

JAIZUBIA- Tel. 943 64 31 94 - 20280 HONDARRIBIA - www.bekoerrota.com



 Sensor Aire	 Separador viento	 Mando a distancia	 Panel deslizable Screen
 DOBLE A www.doble-a.com	 Enrollable Screen	 Panel deslizante Tela	 Veranda

Tel: 943 667 003
Amute, 8 bajo C (Frente Aeropuerto) - HONDARRIBIA (Gipuzkoa)

 SUMINISTROS ELECTRICOS	 OSAGAI ELEKTRIKOAK
	

C\ Salvador Etxeandia, 6 Bajo Tel: 943 62 52 49 Fax: 943 53 73 48 20304 Irún